



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

### 37. buletina (2006ko abenduaren 14koa)

---

- **Laburpena:**
  1. **Hiriko Paisaiaren alorreko teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzea**
- **Zehaztapenak:**
  - Ingurumen Sailean HIRIKO PAISAIAREN TEKNIKARI lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.
  - **Bete beharreko baldintzak:**
    - Arkitekto teknikoa
    - Bide Publikoetako Ingeniari teknikoa
    - B gidabaimena.
  - **Balioetsiko direnak:**
    - Autocad jakitea.
    - Gest programa (neurketak eta aurrekontuak)
    - Office erabiltzea
    - Eskarmentua izatea hainbat alorretan: hiriguneko obra publikoetako proiektuen garapena, neurketa eta aurrekontua eta zuzenketa eta ekonomia-kontrola.
  - **Kontratu mota:** Programa-kontratua. Iraupena: 2 urte (gutxienez). Bulegoetako ordutegia. Gidatzen jakin behar da. Hileko soldata gordina: 2.449,13 euro.
  - **Lanpostuko zereginak:**
    - Hiriko Paisaiaren Bulegoko proiektuak garatzea, arkitektoak ikuskatuta:
      - Eraikuntza xehetasunak definitzea
      - Instalazioen kalkulua (argiteria, ureztatze eta saneamendu sistemak)
      - Obraren plangintza.
      - Neurketak egitea eta aurrekontuak taxutzea
    - Lana kontrolatzea, eraikuntza eta ekonomia alderdietatik.
  - **Izangaien onarpena** LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162006016303 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, **2007ko urtarrilaren 5a** arte (hori barne).
  - Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- **Hautaketa prozesuak** bi zati izango ditu:

Lehenengo, betebeharreko baldintzak dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da; "baloratuko diren baldintzak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, 15 hoberenak aukeratuko dira.

Bigarren zatian, hautatuek ariketa praktikoa egin beharko dute (Autocad erabiliz): obraren marrazkia, eraikitze-prozesuaren garapena, neurketa eta aurrekontua eta antolaketa. Hautagaiek ahoz defendatu beharko dute ariketa Hautaketa Batzordearen aurrean. Proba horiek urtarrilaren 17tik aurrera egitea aurreikusita dago

- Proba teoriko-praktikoa egiteko **onartu eta bazter utzitako** pertsonen zerrendari buruzko informazioa **2007ko urtarrilaren 9tik** aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

#### **Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.**

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

[seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org)  
[seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org)

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA  
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**